Elorrioko udala

ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA ELORRIOKO UDALEKO " ANDRENTZAKO LAGUNTZA-TALDEA" ZERBITZUA KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKI BIDEZ

I. KONTRATUAREN ALDERDI OROKORRAK ETA KONFIGURAZIOA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Baldintza-agiri honetan oinarritutako kontratuak ELORRIOKO UDALEKO "ANDRENTZAKO LAGUNTZA-TALDEA" ZERBITZUA du xede, zeinaren helburu nagusia genero indarkeria jasan duten andrei eta bakardade egoeran, ahulezian, edo beste egoera zail batzuetan daudenei, adibidez, biolentzia fisikoa edo psikologikoa, laguntza emotea eta laguntzea den. Horretarako, taldean aritzeaz gain, terapeuta batek gidatutako banakako saioak eskainiko dira. Hori guzti hori, kontratu-izaera izango duen espediente honetan dagoen dokumentazio teknikoarekin bat.

CPV 75130000-6 Botere publikoei laguntza emoteko zerbitzua.

- CPV 85312320-8 Aholkularitza-zerbitzua.
- CPV 85320000-8 Gizarte Zerbitzuak.
- CPV 85321000-5 Administrazioko Gizarte Zerbitzuak.
- CPV98200000-5 Aukera Berdintasun Gaietan Aholkularitza Zerbitzuak.

Esleipenaren ondoreetarako, zerbitzua ezingo da lotetan zatitu, 2022ko uztailaren 19an berdintasunerako teknikariak egindako txostenaren arabera.

2. KONTRATATZEKO PREMIAREN JUSTIFIKAZIOA KONTRATUAREN ARDURADUNA

Elorrioko gizarte zerbitzuetan, genero indarkeriaren eta baztertze-egoeren ondorioz andren isolamendu kronikoak eta zailtasun emozionalak identifikatu ondoren, eta profil hau duten emakumeei arreta emoteko baliabide-falta dagoela baloratu ondoren, ekimen hau jarri gura da abian laguntza emozionala eta psikologikoa emon ahal izateko emakume hauen banakako ahalduntzea sustatzeko, berdintasunerako tekniariak 2022ko ekainaren 6an egin zuen premia-txostenak jasotzen duen moduan.

3. GAUZATZEKO EPEA.

Kontratu hau egikaritzeko epea guztira formalizatzen den egunaren biharamunetik hasita, honako hau izango da:
Urtebete (1). Bi luzapen gehigarri egiteko aukera, urtebetekoa bakoitza. Gehinezko iraupena, luzapenak barne: 3 urte.
Kontratuaren iraupen-urtea, baita luzapenak, ikasturtearenak izango dira, hau da, 2022ko urritik 2023ko ekainera bitartea (ekaina barne).
Kontratista berandutze-egoeran dagoela ulertuko da aipatutako epea igarotzeagatik, eta horretarako Administrazioak ez du behar izango aurretiazko agindeirik egin beharrik.

4. LIZITAZIOAREN OINARRI-AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ESTIMATUA

1.- Urteko (urtea ikasturtea izango dela kontuan hartuta, hau da urritik ekainera) aurrekonturako lizitazio-oinarria, lizitatzaileak hobetu ahal izango dutena bere eskaintzan, honako hau izango da:

8.500,00 €, BEZa salbuetsita.

2.- Kontratuaren balio estimatua 25.500,00 eurokoa da, BEZa salbuetsita, luzapenak barne.

5. FINANTZAKETA

Kontu-hartzailetzak 2022ko ekainaren 10ean egindako txostena dago espedientean, nahiko diru-izendapen dagoela dioenak. Aurrekontuetan eskumena duen organoak behar diren urteetako aurrekontuetan behar izango diren kredituen erreserba egingo du.

6. ORDAINTZEKO ERA

Ordainketa hileroko fakturari adostasuna emon ondoren egingo da.

Fakturak, Fakturen Sarrerako Gune Nagusian aurkeztuko dira, udal web orriaren bidez: https://www.elorrio.eus/efaktur/empresas/index.action?request_locale=eu_ES

Faktura elektronikoan, azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuak, fakturazio-betebeharrak arautzen dituen erregelamendua onartzekoa, aurreikusten dituen datuak eta betebeharrak sartzeaz gain, Hogeita Hamahirugarren Xedapen Gehigarriaren bigarren atalean, eta fakturazio elektronikoari buruzko araudian aurreikusitako hauek sartu beharko dira:

- Hartzailea: ELORRIOKO UDALA/AYUNTAMIENTO DE ELORRIO
- Kontratazio-Organoa: ALKATETZA
- Kontabilitate publikoetan eskumenak dituen administrazio-organoa: ALKATETZA

DIR3 kodea honako hau da:

Bulego kudeatzailea: L01480329 ELORRIOKO UDALA

Tramite-unitatea: L01480329 ELORRIOKO UDALA

Bulego kontablea: L01480329 ELORRIOKO UDALA

Udalak, emondako zerbitzuen kontratuan jasotakoa jarraituz, adostasuna ziurtatzen duten agiriak onartu beharko ditu zerbitzua emon ondorengo hurrengo hogeita hamar egunen barruan.

Edonola ere, kontratistak ez badu aurkezten faktura dagokion administrazio-erregistroan hogeita hamar eguneko epean faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzetan, interesen sorrera ez da hasiko harik eta hogeita hamar egun igarotzen diren arte faktura zuzen aurkezten duen egunetik, baldin eta Administrazioak ez badu fakturarekiko onarpenik eman, hala badagokio ere, eta ez badu dagokion ordainketarik egin.

7. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Kontratu honetan ez da preziorik berrikusiko, SPKLaren 103.1 artikuluak xedatzen duenarekin bat.

8. BERMEAK

Kontratuaren esleipendunak hartutako obligazioak beteko dituela bermatzeko esleipen-prezioaren % 5ari dagokion behin betiko bermea ezartzeko obligazioa du. Horretarako, esleipen prezioa BEZik barik hartuko du.

Aipatutako bermea ezartzeko epea 17. klausulan agertzen den errekerimenduan zehaztuko dena izango da, eta ezarri ahal izango da SPKLaren 108 artikuluak aurreikusten dituen

bitartekoetako edozeinetan. Bermea ezarri dela egiaztatuko ahal izango da bitarteko elektroniko, informatiko edo telematiko bidez. Lizitatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik betebehar hau bete ezean, Administrazioak ez dio zerbitzua esleituko.

Bermea osorik edo zati bat itzultzeko, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen, Sektore Publikoko Kontratuena, 111 artikuluak xedatutakoa jarraituz egingo da, berme-epea amaitutakoan eta esleipendunak kontratuaren betebehar guztiak behar bezala betetakoan.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

9. ESLEITZEKO PROZEDURA

Kontratu honen esleipena prozedura ireki bidez egingo da, SPKLn aurreikusitakoari jarraituz, zeinen izapidetzean aipatutako Legean eta hau garatzeko arauetan jasotako jarduketak jarraituko diren.

10. LIZITAZIO ELEKTRONIKOA

Lizitazio hau bitarteko elektroniko bidez izapidetuko da, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen, Sektore Publikoko Kontratuena, xedapenak jarraituz. Ondorioz, Udalak lizitatzaileekin izango duen harremana bitarteko elektroniko bidez egingo da.

11. JAKINARAZPENAK ETA ABISUAK

Espediente honekin lotutako jakinarazpen eta abisu guztiak bitarteko elektroniko bidez egingo dira, honako prozesu hau jarraituz:

1.) Hartzailearen eskura jartzea.
2.) Sarrera jakinarazpenaren edo abisuaren edukira.

Epeak zenbatzen hasiko dira jakinarazpenaren abisua egiten denetik (jakinarazpenaren xedeari dagokion ekintza egun berean kontratatzailearen profilean argitaratzen bada), edo jakinarazpena jasotzen den unetik (ekintza egun berean argitaratzen ez bada kontratatzailearen profilean).

Jakinarazpena eskuragarri jarritako egunetik egutegiko hamar egun igarota, hartzaileak onartu edo atzera botatzen ez badu, amaitutzat joko da, eta jakinarazpenaren izapidea betetzat emongo da.

12. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Kontratazio-prozedura honetan parte hartu ahal izango dute gaitasun juridiko eta jarduteko ahalmen osoa duten pertsona natural edo juridikoek kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen badituzte eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 71. artikuluan kontratatzeko aurreikusitako debekuetan sartuta ez badaude. Kaudimena 17-5º klausulak aipatzen dituen baliabideen bidez egiaztatu eta ebaluatuko da.

Era berean, norberak egin dezake edo baimendutako pertsona batek ordezkatu dezake horretarako emondako ahalorde askietsi bidez. Pertsona juridiko baten ordez horren kideren batek parte hartzen duenean, dokumentuen bidez justifikatu beharko du horretarako gaitua dagoela. Bai kasu batean, bai bestean, aipatutako kontratatzeko ezintasun arrazoiak eragiten diote ordezkariari.

Pertsona horiek, halaber, kontratu honen xede den jarduera edo prestazioa egiteko eska daitekeen enpresa-gaitasuna edo gaitasun profesionala izan beharko dute.

Berariaz, lizitazio honetan psikologian lizentziadun edo gradu titulua edukitzea eskatzen da.

Kontratatzeko berariazko debekua:

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 71.1.d) artikuluan xedatutakoaren arabera, ezin izango dute kontratatu 250 langiletik gora duten enpresek berdintasun-plan bat edukitzeko betebeharra betetzen ez badute Emakumeen eta Gizonen Berdintasuneko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45 artikuluak xedatzen duenarekin bat. Beraz, 250 langiletik gorako enpresen kasuan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana diseinatu eta benetan aplikatu dutela egiaztatu beharko dute. Baldintza hau urriaren 13ko 901/2020 Errege Dekretuaren arabera interpretatu beharko da, zeinaren bidez, berdintasun-planak eta haien erregistroa arautzen diren eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua, lan-hitzarmen eta akordio kolektiboak erregistratu eta gordailutzeari buruzkoa aldatzen den, beraz, egun horretan, nahitaezkoa da aipatutako **plan** hori **50** behargin baino gehiagoko enpresetan eginda egotea.

Era berean, ezingo dute kontraturik egin merkatuko diziplina-arloan, lanbide-arloan edo laneko integrazioaren arloan eta aukera berdintasunaren arloan eta desgaitasuna duten pertsonen ez diskriminatzearren arau-hauste larria egiteagatik zehapen irmorik jaso duten enpresek, arlo sozialean pertsonen gizarteratze kontuetan egindako arau-hausteak barne, Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginak xedatutakoaren arabera.

Ondorioz, kontratazio-prozeduratik kanpo geratuko dira Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legean, Berdintasunerako 3/2007 Lege Organikoan eta Euskadiko Berdintasunerako 4/2005 Legean ezarritako kontratatzeko debekua duten pertsonak eta enpresak, beste batzuen artean honako baldintza hauek betetzen ez dituztenak: hala badagokio, berdintasun-plan bat izateko betebeharra ez betetzea (901/2020 Errege Dekretua), langile guztien ordainsari-erregistroa ez izatea (902/2020 Errege Dekretua), behargineen eskubideen aurkako delituengatik, laneratzearen eta aukera-berdintasunaren arloko arau-hauste astunagatiko zehapen irmoagatik eragindakoak, edo lan- edo gizarte-arloko arau-hauste oso astunagatik, laneko arriskuen prebentzioaren, indarkeria matxistaren edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko arau-hausteak barne.

13. ESLEIPEN-IRIZPIDEAK

Kontratuaren esleipenerako oinarri izango diren balorazio-irizpideak eta haztapena honako hauek dira:

- ***Formula bidez baloratuko ez diren balio-judizio baten mende dauden irizpideak % 51.***
- ***formula bidez baloratuko diren irizpideak % 49.***

➢ Balio-judizio baten mende geratzen diren irizpideak eta apreziazio automatikoen aurretik baloratuko direnak honako hauek dira (guztira 51 puntu):

Zerbitzua emoteko proiektua. 0-51 puntu. Hemen honako hau baloratuko da:

1. Oinarri teorikoa eta programaren helburuak: 20 puntu.
   a) Proiektuan proposatzen diren esparru teorikoaren, helburuen eta ekimenen arteko koherentzia (10 puntu).
   b) Jarduketak andren ahalduntzeari begira definituta egotea eta baita genero indarkeriaren biktima direnei arreta emoteko (10 puntu).
   c) Proiektu osoan genero ikuspegia txertatzea, hau da, justifikazioan, helburuak, jarduerak, metodologia eta ebaluazio-adierazleak. Proiektuaren xedearekin lotuta dagoelako derrigorrezko betebehar bat da, beraz, ez da punturik emongo.

2. Behar-metodologia: 24 puntu.
   a) Metodologia eta ekintza-plana (12 puntu).

b) Planteamentu zehatza maila bakoitzaren planifikazio, ebaluazio eta koordinazioarena (7 puntu).
c) Proposatutako hobekuntzak (5 puntu).

3. Aurkeztutako proposamena Elorrioko emakumeen errealitateari egokitua: 7 puntu.
   a) Elorrioko emakumeen errealitatea ezagutzea: (7 puntu).

Hautaketa-prozesuan jarraitu ahal izateko gutxienez 30 puntu lortu beharko dira proiektuaren 51 gehienezko puntuen gainean.

Balio-judizio baten mendeko irizpideen balorazioa egitea aditu-batzorde bati eskatuko zaio, honako hauek osatuko dutena:

- Udal idazkaria.
- Udal kontu-hartzailea.
- Berdintasunerako teknikaria.

➢ Formula bidez kalkulatuko diren irizpide objektiboak: ESKAINTZA EKONOMIKOA: 49 puntu.

Eskaintza ekonomikoenari puntuazio altuena emongo zaio, eta gainerako eskaintzei ezarriko zaizkien puntuak ateratzeko erabiliko den formula honako hau izango da: eskaintza merkeenaren eta baloratzen den lizitatzaileak aurkeztutako eskaintzaren artean ateratzen den kozientearen emaitza bider irizpideari ezar dakizkiokeen puntuen guztia. Hau da:

$$\frac{Ob}{Oi} \times z$$

"Ob" eskaintza ekonomiko baxuena bada eta "Oi" baloratzen den lizitatzailearen eskaintza, "Z" izango da irizpide honetan ezarri daitezkeen puntuen zenbaki topea.

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontutik gorako proposamenak, automatikoki baztertuko dira.

Eskaintza ekonomikoa II Eranskinean egingo da, eta BEZa duen kasuan, banakatuta agertuko da.

14. KONTRATAZIO-MAHAIA

Elorrioko Udaleko Kontratazio-Mahai Iraunkorra honako kide hauek osatzen dute: https://www.elorrio.eus/eu-ES/Udala/Idazkaritza/Kontratatzailearen_profila/Orriak/default.aspx

15. EPEA ETA ESKAINTZAK AURKEZTEKO EZAUGARRIAK, ETA BALDINTZA-AGIRIAK IKUSTEA

Lizitazio hau Udal honetako kontratatzailearen profilean iragarriko da, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman dagoena.

Eskaintzak elektronikoki aipatutako Plataformaren bitartez aurkeztu beharko dira, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik hasita egutegiko hurrengo 15 egunen barruan, azken egunaren arratsaldeko 2ak arte.

Udal honetako kontratatzailearen profilera sartzeko helbide honetara jo beharko da: " https://www.elorrio.eus/eu-ES/Udala/Idazkaritza/Kontratatzailearen_profila/Orriak/default.aspx"

Leku honetan baita ikusi ahal izango dira bai baldintza-agiriak, bai agiri osagarriak.

Lizitatzaileek baldintza-agirien edo agiri osagarrien gaineko informazio gehigarria eskatu duten kasuan eskaintzak aurkezteko azken eguna baino sei egun lehenago bialduko zaie, eskaera eskaintzak aurkezteko aipatutako muga-eguna baino 12 egun lehenago, gutxienez, eskatu badute.

SPKLaren 136.2 eta 3 artikuluetan xedatutakoarekin bat, baldintza-agirien edo dokumentazio osagarriaren gaineko informazio gehigarria adierazitako epeetan ezin izan bada emon, eta eskaintzak baldintza-agiriei erantsitako dokumentazioa *in situ* ikusi ondoren baino ezin direnean aurkeztu eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da komeni den beste denbora lizitatzaileek eskaintzak egiteko behar duten informazioa lor ahal dezaten.

Lizitazio prozedura honetan aipatutako bide elektronikoen bitartez aurkezten ez diren eskaintzak ez dira onartuko. Honetarako, beharrezkoa da Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformako edo Sektore Publikoko Kontratazioaren Plataformako erregistratutako erabiltzailea izatea.

Kasua bada eskaintza bat osatzen duten agirietako edozein ezin dela ondo ikusi, inguruabarraren gaineko jakinarazpena egin ondoren 24 orduko epean lizitatzaileak aukera izango du akatsa emoten duen fitxategian sartutako agiria formatu digitalean aurkezteko. Geroago aurkeztutako agirian ezingo da eskaintzan sartutako jatorrizkoaren gainean inolako

aldaketarik egin. Kontratazio-organoak egiaztatzen badu agirian aldaketak egin direla, ez da kontuan hartuko lizitatzailearen eskaintza.

Eskaintzak ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN Agiri honetan aurreikusitakoa jarraituz aurkeztu beharko dira, eta lizitatzaileak eskaintza aurkeztean baldintza barik onartzen ditu klausulak edo baldintzak, salbuespenik eta erreserbarik gabe, eta Mahaiari eta Kontratazio Organoari baimena emoten diote Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan dauden datuak kontsultatzeko.

Lizitatzaile bakoitzak ezingo du proposamen bat baino gehiago aurkeztu, aldaerak onartzearen kaltetan barik. Ezingo du ezta ere proposamena sinatu aldi baterako enpresa batekin edo aldi baterako enpresa baten baino gehiagotan agertu. Arau hauek hausteak lizitatzaileak sinatutako eskaintza guztiak ez onartzea ekarriko du.

Informazio publikoa eskuratzeari buruz indarrean dagoen legerian eta esleipenaren publizitateari eta hautagaiei eta lizitatzaileei emon beharreko informazioari buruzko SPKLren xedapenetan xedatutakoa eragotzi gabe, hauek konfidentzialtzat jo ahal izango dute eskaintzak egitean haiek emondako informazioaren zati bat, bereziki sekretu tekniko edo komertzialei eta alderdi konfidentzialei buruzkoa. Udalak ezingo du informazio hau zabaldu lizitatzailearen baimenik barik.

16. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO ERA

Lizitatzaileek hiru gutun-azal elektroniko aurkeztuko dituzte. Gutun-azal hauek lizitatzaileak edo ordezkatzen duen pertsonak sinatuta egongo dira eta bakoitzaren barruan gutun-azal bakoitzerako klausula honetan zehazten den edukia sartuko da.

“A” GUTUN-AZALA: “GAITASUNA ETA KAUDIMENA KONTRATATZEKO”.

Gutun-azal honen barruan honako agiri hauek sartuko dira:

a) Gaitutako posta elektronikoaren helbidea.
   Gaitutako posta elektroniko helbide bat zehaztuko da, SPKLaren hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat. Helbide honetan egingo dira kontratazio-espediente honekin lotutako jakinarazpenak.

b) Lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena.

Adierazpen honetan lizitatzaileak Administrazioarekin kontratatzeko legeak ezartzen dituen baldintza guztiak betetzen dituela esango du, eta baita baldintza-agiri honetan kontratua lortu ahal izateko betebeharrak, eta bereziki 12 eta 17-5º klausuletan zehazten direnak. Adierazpena Europako Kontratazio Agiri Bakarrean (EKAB) egingo da. Hau betetzeko argibideak agiri honen I. eranskinean daude.

Nolanahi ere, kontratazio-organoak edo mahaiak prozedura ondo amaituko dela bermatzeko, edozein momentutan, esleipen-proposamena emon aurretik lizitatzaileei eskatu ahal izango die, kontratuaren esleipenduna izateko plegu honetako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak aurkezteko.

c) Aldi Baterako Enpresa-Elkartea (ABEE) osatzen duen operadore ekonomikoen kasuan, kide bakoitzak bere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du. Era berean, kontratuaren esleipendun izanez gero ABEE formalki eratzeko konpromisoa aurkeztu beharko dute, eta ABEEa osatzen dutenen izenak, inguruabarrak eta partaidetza zehaztu beharko dituzte.

d) SKPLaren 75. artikuluak xedatzen duenarekin bat, lizitatzaileak beste erakunde batzuetako kaudimena eta bitartekoak oinarritzat hartzen baditu, horietako bakoitzak, baita, aurkeztu beharko du erantzukizunpeko adierazpena.

e) Loteka banatuz gero, kaudimen-baldintza desberdinekin, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko da kaudimen-baldintza berberak aplikatzen zaizkion lote edo lote-multzo bakoitzeko.

Legean eta baldintza-agiri honetan eskatzen diren nortasun-, gaitasun- eta kaudimen-betekizunak betetzen diren ala ez proposamenak aurkezteko epe-amaierakoa izango da.

“B” GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA “JUDIZIO-BALIO BATEN ARABERA HAZTATUKO DIREN IRIZPIDEAK.”

Gutun-azal honetan sartuko dira balio-judizio baten mende geratzen den balorazio-irizpidearekin lotutako agiriak, agiri honetako 13. klausulan agertzen direnak.

“C” GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- BALORAZIO AUTOMATIKO IRIZPIDEAK

Gutun-azal honen barruan eskaintza ekonomikoa sartuko da II. Eranskinaren ereduaren arabera.

17. AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA ZABALTZEA ETA TRATATZEA, ENPRESAK HAUTATZEA ETA ESKAINTZAK BALORATZEA

Proposamenak aurkezteko epea itxita honako jarduketa hauek egingo dira:

1º. **A GUTUN-AZALA ZABALTZEA:**

Kontratazio-mahaiak "A" gutun-azala bide elektroniko bidez zabalduko du, eta bertan aurkitzen dituen agirien gaineko kalifikazioa emongo du.

SPKLaren 141.2 artikuluak xedatzen duena betez, Kontratazio Mahaiak aurkeztutako agirietan zuzendu daitezkeen akatsak daudela ikusten badu, dagozkien lizitatzaileei jakinaraziko die eta akatsak zuzentzeko hiru egutegiko egun emongo dizkie.

Akatsak zuzentzeko lizitatzaileei egindako jakinarazpenak Elorrioko Udalaren kontratatzailearen profilean argitaratuko dira, hala nola, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman.

2º. **"B" GUTUN-AZALA ZABALTZEA**

"B" gutun-azalean aurkeztutako dokumentazioa, balio-judizio baten mende geratzen diren irizpideekin lotuta, kontratatzailearen profilean 48 orduko aurrerapenarekin argitaratutako egunean eta orduan zabalduko da. Ondore hauetarako, dokumentazio honetan akatsak edo omisioak zuzentzea beharrezkoa balitz, kontratazio-mahaiak gehienezko sei egun balioduneko epea emongo du maiatzaren 8ko 817/2009 ED, urriaren 3eko Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legearen zati baten garapena egiten duena, 27. artikuluaren arabera.

3º. **"C" GUTUN-AZALA ZABALTZEA**

"B" gutun-azala zabaldu eta bertan aurkitutako dokumentazioa baloratu ondoren, Kontratazio-Mahaiak "C" gutun-azala zabalduko du, Elorrioko Udalaren kontratatzailearen profilean iragarritako lekuan, egunean eta orduan. Honetarako, eta gutun-azal honetako dokumentazioan akatsik zuzendu beharrik balego edo zerbait falta izango balitz, Mahaiak gehienez sei egun balioduneko epea emongo du zuzenketak egiteko, 817/2009 Errege Dekretuaren 27. artikuluak xedatzen duena betez.

Saio honetan eskaintza bakoitzean balio-judizio baten mende dauden irizpideei emondako balorazioa jakinaraziko da.

4º. **ESKAINTZEN SAILKAPENA**

Irizpide guztiak baloratu ondoren, Kontratazio-mahaiak aurkeztutako proposamenak sailkatuko ditu lehenengo lekuan puntu gehien lortu dituena jarriz atzetik gainerako guztiak joango dira lortutako puntuen arabera, eta egin beharreko jarduketak egin ondoren esleipenerako proposamena egingo dio Kontratazio-Organoari.

Kontratuaren esleipen-proposamenak ez du eskubiderik sortuko proposatutako lizitatzailearentzat, horiek Udalaren aurrean ez baititu lortuko kontratua formalizatzen ez den bitartean.

SPKLaren 149 artikuluak aurreikusten duenaren babesean, eskaintza bat edo gehiago nabarmenki baxuegiak direla aurkitzen direnean –horretarako kontuan hartuko dira urriaren 12ko 1098/2001 EDaren, Kontratu-Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena, 85. artikuluak jasotzen dituen irizpideak- eskaintzak nabarmenki baxuegiak direla dioen deklarazioak lizitatzailea edo lizitatzaileak entzun behar izatea ekarriko du, edo kasua bada aurkeztu dituzten lizitatzaileak eta dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa. Kasu honetan kontratazio-organoak, lizitatzailearen justifikazioa eta eskatutako txostenak kontuan hartuta, Administrazioaren nahierara gauzatu daitekeela uste duen eskaintza abantailatsuenaren aldeko esleipena egitea erabakiko du.

Ordea, kontratazio-organoak uste izango balu eskaintza ezin dela bete baxa nabarmenegiak sartu direlako, sailkapenetik kanpo utziko du eta eskaintza hoberenaren aldeko adjudikazioa egingo du.

Egiten den guztia aktetan jasoko da eta aktak, derrigorrean egin beharko direnak, espedientean sartuko dira.

5º. ERREKERIMENDUA LEHENENGO SAILKATUARI

Aurreko jardunak eginda, kontratazio-zerbitzuek lehen sailkatuari eskatuko diote errekerimendua egiten zaion egunaren biharamunetik hasita hamar egun balioduneko epean jarraian zehazten diren jardunak egitea edo zehazten diren agiriak aurkeztea:

a) Parte-hartzailearen edo honen ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia. Gainera, beste pertsona edo erakunde baten izenean ari bada, ahalorde notariala, Udalak askietsia.

b) Eskatzailea pertsona juridikoa denean, eratze-edo aldatze-eskritura, kasuan-kasuan, behar bezala inskribatuta Merkataritza Erregistroan eta identifikazio fiskalaren

zenbakia, aplikagarria zaion merkataritza-legeriarekin bat, inskribapena eska daitekeenean. Hau, beharrezkoa ez balitz, jarduteko gaitasuna jarduera arautzeko arauak batzen dituen eratze-eskritura bidez egiaztatuko da, edo agiri, estatutu edo sortze-ekitaldi bidez, eta hala behar izanez gero, dagokion erregistro ofizialean inskribatuta egon beharko du.

Europar Batasuneko estatu kideetako enpresaburu ez espainiarrak direnean enpresa duten estatuko legediaren arabera erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute. Inskripziorik aurkeztu ezin den kasuan zinpeko aitorpena edo ziurtagiria aurkeztuko dute, aplikagarriak diren komunitateko xedapenekin bat.

Gainerako enpresari atzerritarrek jarduteko gaitasuna enpresa kokatuta dagoen lurralde eremuari dagokion estatuan Espainiako Misio Diplomatiko Iraunkorraren edo Bulego Kontsularraren txostena aurkeztu beharko dute.

c) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan urtean eskatutako alta kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, edo ordaindutako azken kuotaren ordainagiria gainerako kasuetan, eta aipatutako zergan baja ez duela eskatu aitortzen duen aitorpen arduratsua kasu bietan.

d) Kaudimen ekonomikoa eta teknikoa egiaztatzea:

Lizitatzailearen kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionalaren frogagiriak, SPKLaren 87.1 b) eta 90.2 artikuluetan xedatutako bitartekoen bidez. Aipatutako bitartekoekin lotuta, kontratu honetarako enpresek bete behar dituzten kaudimenaren gutxieneko betekizunak honako hauek izango dira:

- **Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa:**
  Erantzukizun Zibileko asegurua 300.000 eurokoa edo handiagoa dutela egiaztatzen duen frogagiria

- **Kaudimen tekniko eta profesionala:** Metatua
  -Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eragingarrirako gaietan edota emakumeen kontrako indarkerian talde teknikoaren gaikuntza, kontratuan parte hartuko duten pertsonak zehaztuz, eta genero gaietan duten titulazioa, prestakuntza eta esperientzia adieraziz:
  “Emakumeen eta gizonen berdintasun gaietan edota emakumeen kontrako indarkerian 150 orduko edo gehiagoko prestakuntza.”

- Talde-terapia proiektu antzekoetan parte hartu izana eta garatu izana, edota emakumeekin, gutxienez bi udaletan azken hiru urteetan.

Lizitatzaileak egin duen eskaintzan –kontraturako- aurreikusi dituen giza baliabide edota bitarteko material nahikoak txertatzeko betebeharrarekin osatuko da, gainera, kaudimenaren egiaztapena. Horri dagokionez, nahikotzat jotzen dira preskripzio teknikoen agirian adierazitakoak. Bitarteko hauek kontratuari atxikitzea funtsezko kontratu-betebeharra izango da; beraz, SPKLren 76.2 artikuluan aurreikusitakoaren babesean, ez-betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoitzat hartu ahal izango da, 211.1.f) artikuluan adierazitako ondorioetarako.

Proposamenetan agertu egin beharko dira kontratua egikaritu behar duten pertsonen izenak eta kualifikazio profesionala. Honetaz esan behar da esleipendunak ezingo dituela pertsona hauek ordeztu Administrazioren aurretiazko baimenik barik.

e) Zenbait enpresaburuk lizitazioan Aldi Baterako Enpresen Elkartea eratuz parte hartzen badu, bakoitzak bere gaitasun eta kaudimena egiaztatu beharko du, aurreko puntuetan xedatutakoekin bat. Halaber, proposamenean ABEEren kide bakoitzak egingo lukeen xedearen zatia azalduko da, guztien kaudimen-baldintzak zehaztu eta egiaztatzeko.

f) Atzerriko enpresen kasuan, kontratuaren ondorioz sor daitezkeen zuzeneko eta zeharkako gorabehera guztietarako edozein mailatan Espainiako auzitegi eta epaitegien jurisdikzioaren menpe geratuko direla onartuz jasotzen duen aitorpena, eta kasu honetan lizitatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari ukoa.

g) Zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzan zorrik ez duela egiaztatu beharko du edo baimena emongo dio kontratazio-organoari zuzenean lortu ahal izateko.

h) Behin betiko bermea ezarri izanaren egiaztagiria.

i) Titulazio akademikoa (gaitasuna) eta 12. eta 20. klausuletan eskatutako euskara ezagutzak egiaztatzea.

Errekerimendua emondako epearen barruan behar moduan bete ezean, lizitatzaileak egindako eskaintzan atzera egin duela ulertuko da, eta kasu honetan dokumentazio bera sailkatuen zerrendako hurrengo lizitatzaileari eskatuko zaio, sailkapen ordena jarraituta.

Aipatutako errekerimendua egin ondoren aurkeztutako dokumentazioan zuzendu daitezkeen akatsak ikusiko balira, egutegiko hiru eguneko epea emongo da akatsak zuzentzeko, eta hala jakinaraziko zaio lizitatzaileari, eta Udalaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

18. ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA

Kontratazio organoak eskaintza hoberena egiten duen lizitatzailearen aldeko esleipena erabakiko du lehenengo sailkatuari eskatutako dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunen barruan SPKLaren 150.3 artikuluak xedatutakoarekin bat.

Esleipenaren jakinarazpena lizitatzaile guztiei egingo zaie eta Udalaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratua burutuko da administrazio-agiria formalizatu ondoren. Agiri hori lizitazioaren baldintzei lotuko zaio estu-estu, eta nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Nolanahi ere, kontratistak kontratua eskritura publikoan jasotzea eskatu ahal izango du, eta kasu honetan sortuko liratekeen gastuak berak ordainduko ditu.

Kontratu honen kontra, SPKLaren 44.1 artikuluak xedatzen duenari jarraituz, errekurtso berezia tartekatzeko aukera duen kontratua bada, formalizazioa ezingo da egin lizitatzaileei eta hautagaiei jakinarazpena bialtzen zaienetik 15 egun igaro baino lehen. Hamabost egun hauen barruan aipatutako errekurtsoa tartekatu ahal izango da, eta kasu honetan kontratazioaren prozeduraren izapidea eten egingo da errekurtsoa ebatzi arte, aipatutako Legearen 44 artikuluak eta hurrengoek xedatzen dutena jarraituz garatuko da.

Aipatutako 15 egun horiek igarota errekurtsorik tartekatu barik, esleipendunari eskatuko zaio kontratua formalizatzea errekerimendua jaso eta egutegiko hurrengo bost eguneko epearen barruan.

19. KONTRATUA EZ EGITEKO ERABAKIA ETA ADJUDIKAZIO-PROZEDURAN ATZERA EGITEA

SPKLaren 152 artikuluak xedatzen duenarekin bat, kontratazio-organoak behar bezala justifikatuta dauden interes publikoko arrazoiengatik soilik hartu ahalko du kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia. Adjudikazio-prozeduran ere atzera egin ahal izango du kontratua prestatzeko arauetan edo esleipenerako prozedura arautzen duten arauetan zuzendu ezin daitekeen arau-hausteren bat ikusi denean. Bai kontratua ez egiteko erabakia, bai prozeduran atzera egitekoa kontratua formalizatu aurretik egin beharko dira, eta aipatutako artikuluan ezarritako betebeharrekin bat.

III KONTRATUA EGIKARITZEA

20. KONTRATUA EGIKARITZEKO ERREGIMEN OROKORRA

Kontratua esleipendunaren arrisku eta menturara egingo da, baldintza-agiri honetako klausulek aurreikusten dutena jarraiki, eta kasu honetan, espedienteari lotutako zehaztasun teknikoen arabera, eta Udalaren zuzendaritza, ikuskaritza eta kontrol pean, ahalmen hauek idatziz, zein ahoz emongo dituenak.

Kontratistari edo bere mendeko pertsonei egotz dakizkiekeen egintzen edo ez-egiteen ondorioz kontratuaren martxa ona arriskuan jartzen bada, Administrazioak beharrezkotzat ikusten dituen neurriak hartzea eskatu ahal izango du kontratua behar bezala betetzeko edo berrezartzeko.

SPKLaren 202.1 artikuluak aurreikusten duenarekin bat, kontratu hau burutzeko izaera sozialeko, laneko, etiko, ingurumeneko edo beste mota bateko honako baldintza berezi hauek eskatuko dira:

- Lizitatzaileek kontratua egikaritzeko atxiki behar dituzten giza baliabideak edota baliabide materialak identifikatu behar dituzte. Halaber, emon egin beharko dituzte kontratuaren xederako pertsonal erantzulearen izenak eta lanbide-gaitasuna:
- Esleipendunak, kontratua indarrean dagoen aldian hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du, betiere beharginari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, eta ordaintzekoa den soldata ezin izango da, inola ere, soldata hura baino txikiagoa izan.
- Enpresa lizitatzaileek esleipena jasoz gero, kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileei aplikatuko dizkien hitzarmen kolektiboa zein izango den zehaztu beharko dute, eta behin kontratua esleitu eta gero langileei benetan aplikatuko zaizkien lan-baldintzei buruz eskatzen zaien informazio guztia eman beharko dute.

Aipatutako baldintza hauek funtsezko kontratu-betebehart izaera dute; beraz, SPKLren 201 artikuluan aurreikusitakoaren babesean, ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoitzat hartu ahal izango da, 211.1.f) artikuluan adierazitako ondoreetarako.

21. LAN- ETA SOZIAL- ETA GARDENTASUN-ARLOAK / BERDINTASUNA / HIZKUNTZA GAIETAKOAK

a) Laneko, gizarteko eta gardentasuneko betebeharrak, eta laneko segurtasun eta osasunekoak.

Kontratista behartuta dago lan, Gizarte Segurantza eta laneko segurtasun eta osasunaren alorrean indarrean dagoen araudia betetzera. Halaber, behartuta dago honako hauek betetzera: azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzekoa; Emakume eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa; Lan Arriskuen Prebentziorako 31/1995 Legea; urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretua, Prebentzio Zerbitzuen Araudia, hala nola kontratua egikaritzen den bitartean promulgatzen diren arauak.

Kontratista kontratuaren denbora guztian behartuta geratzen da aplikatu behar duen hitzarmena kolektiboko arauak eta baldintzak betetzera.

Enpresa lizitatzaileek esleipena jasoz gero, kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileei aplikatuko dizkien hitzarmen kolektiboa zein izango den zehaztu beharko dute.

Halaber, apirilaren 7ko 3/2016 Legearen, Zenbait Klausula Sozial Kontratazio Publikoan Sartzekoa, 5.2 artikuluak xedatzen duenarekin bat, eskatu eta gero, informazio guztia emotera behartuta dago, legeak xedatzen dituen hala nola udal eremuan emoten diren arauetako betebeharrak betetzeko.

Ez da inolako lan-loturarik egongo kontratua gauzatzeko erabiliko diren behargineen eta Elorrioko Udalaren artean, izan ere, kontratua berariaz dago enpresa esleipendunaren zuzendaritza- eta antolaketa-boterearen mende, legez ezarritako esparru eta agindu guztietan, eta, beraz, enpresa hori da kasuan aplikatu beharreko lege-xedapen guztiak betetzera behartuta dagoen bakarra, bereziki kontratazioaren, Gizarte Segurantzaren, laneko arriskuen prebentzioaren eta tributuen arloei dagokienez, behargin horiek ez baitute inola ere Elorrio**ko Udalarekin lotura juridiko-laboralik izango, legez edota kontratuz Udalari dagozkion kontrol- eta ikuskapen-ahalmenak alde batera utzita.**

b) Berdintasuna

Ondorioz, kontratazio-prozeduratik kanpo geratuko dira Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legean, Berdintasunerako 3/2007 Lege Organikoan eta Euskadiko Berdintasunerako 4/2005 Legean ezarritako kontratatzeko debekua duten pertsonak eta enpresak, beste batzuen artean honako baldintza hauek betetzen ez dituztenak: hala badagokio, berdintasun-plan bat izateko

betebeharra ez betetzea (901/2020 Errege Dekretua), langile guztien ordainsari-erregistroa ez izatea (902/2020 Errege Dekretua), behargineen eskubideen aurkako delituengatik, laneratzearen eta aukera-berdintasunaren arloko arau-hauste astunagatiko zehapen irmoagatik eragindakoak, edo lan- edo gizarte-arloko arau-hauste oso astunagatik, laneko arriskuen prebentzioaren, indarkeria matxistaren edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko arau-hausteak barne.

Lizitatzaile guztiak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute kontratatzeko aipatutako debekuetako batean ere ez daudela sartuta esanez, eta zehazki aipatu beharko dute 50 behargin baino gehiago dituen enpresa bada enpresako plantilarentzat berdintasun plana egin eta ezarri duela.

Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirakoak, xedatzen dituen printzipioak eta betebeharrak beteko dira, hala nola urriaren 14ko 901/2020 Errege Dekretua (Berdintasun-Planak Enpresetan) eta urriaren 13ko 902/2020 Errege Dekretua, Emakumeen eta Gizonen Ordainsari Berdintasunari buruzkoa. Zehatzago:

* Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan ez dute hizkuntza modu sexistan erabili behar, eta saihestu beharko dute emakumeen eta gizonen edozein irudi ez-estereotipatu, eta sustatuko dituzte berdintasun balioak, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzukidetasuna zein rolen eta genero-identitateen aniztasuna. Esleipendunak kontratuaren barruan emakumeen eta gizonen egoeraren azterketa egingo du, eta desberdintasunak ikusten baditu zuzentzeko neurriak proposatuko ditu. Modu berean, esleipendunak ebaluazio adierazleak eta mekanismoak egin beharko ditu emakumeen eta gizonen arteko benetako inpaktua aztertzeko, eta behin kontratua amaitutakoan berdintasunaren bidean.

* Kontratua gauzatzean, kontratatutako enpresak edo kontratatutako emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatuko du tratuari, enplegurako sarbideari, lanbide-sailkapenari, sustapenari, iraunkortasunari, prestakuntzari, azkentzeari, ordainsariei, lan-kalitateari eta lan egonkortasunari, lanaldiaren iraupenari eta antolamenduari dagokienez.

* Era berean, kontratua gauzatzen den bitartean, enpresa kontratistak edo azpikontratistak betearazpenari atxikitako pertsonen bizitza pertsonala, lanekoa eta familiakoa bateragarri egiteko neurriak eutsiko ditu.

* Gainera, kontratatutako enpresak edo azpikontratak, 10 behargin baino gehiagorekin, sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko neurriak izango dituela bermatuko da, kontratua gauzatzera atxikitako behargineei dagokienez.

* Kontratua betearazteko behargin gehiago kontratatzeko premia balego eta enpresa kontratistak edo azpikontratistak plantillan desoreka badu emakume gutxiago dituelako, kontratu hau gauzatzeko eta kontratu osorako emakume bat kontratatu beharko du, edo gutxienez, aldi baterako kontratua mugagabeko kontratua bihurtuko du. Plantilla desorekatutzat joko da emakumeen ordezkaritza plantilla osoaren % 40a baino txikiagoa denean.

Gainera, Adingabeak Babesteko Legean eta Boluntariotzaren Lege barrian sexu-izaerako delituen ziurtagiriari buruz xedatutakoa bete beharko da.

c) Hizkuntzaren gaineko betebeharrak.

Kontratuarekin lotutako lanak, jakinarazpenak, txostenak eta gainerako agiri guztiak Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan entregatuko dira, euskarari lehentasuna emonaz. Gainerako jarduerek ere, indarrean dagoen euskararen udal ordenantzak dioena jarraitu beharko dute.

Bereziki, hizkuntza paisaia zainduko da, baita “lehenengo berbea euskaraz” irizpidea. Laneko harremanak euskaraz garaztuko dira.

Udala kontratistarengana Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan zuzenduko da, eta ez dago itzulpenik egitera behartuta.

Zerbitzu-lekuetan edo inguruetan hiritarrei zuzendutako oharrekin jarriko den edozein kartel edo ohar gutxienez euskaraz egongo da, eta bi hizkuntzetan jartzen denean, hau da euskaraz eta gaztelaniaz lehentasuna euskarari emongo zaio eta hizkien neurriak ere 1/3 handiagoak izango dira, eta gaztelaniazko testua ondo irakurriko dela bermatuta geratuko da.

Herritarrekin, enpresekin edo udal beharginekin harremana izango duen pertsonalak Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak menderatuko ditu, eta euskarari dagokion C1 maila edo parekidea eduki beharko du. Aipatutako baldintzak funtsezko kontratu-betebehar izaera du; beraz, SPKLren 201 artikuluan aurreikusitakoaren babesean, ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoitzat hartu ahal izango da, 211.1.f) artikuluan adierazitako ondoreetarako.

21. KONTRATISTAREN LAN-OBLIGAZIOAK

Kontratistak lanaren, Gizarte Segurantzaren, Laneko Segurtasun eta Higienearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete beharko ditu langileekiko, hala nola, aplikatu beharreko sektoreko hitzarmen kolektiboaren araberako soldata-baldintzak, guztia kontratu honen xedearen zerbitzuetan beharra egingo duten behargineei buruz ari garela. Administrazioa salbuetsita geratuko da erantzukizunetik baldintza hau betetzen ez bada.

22. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA GAUZATZEN ARI DEN BITARTEAN HIRUGARRENEI SORTUTAKO KALTEENGATIK

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 196 artikuluak xedatzen duenarekin bat kontratista izango da kontratua gauzatzeko egin beharrekoen ondorioz hirugarren batzuei eragindako kalte eta galeren erantzulea.

23. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Administrazioak, interes publikoko arrazoiak daudenean, SPKLaren 205 artikuluak aurreikusten dituen inguruabarretako bat dagoenean kontratua aldatzeko aukera izango du,

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 203, 206 eta 207 artikuluak xedatzen dutenarekin bat, horrekin lizitazioaren eta esleipenaren baldintza funtsezkoenak aldatzen ez badira.

Aipatutako aldaketak egiten badira kontratistak derrigorrean bete beharko ditu.

24. IZAERA PERTSONALEKO DATUAK BABESTEA

Kontratazio hau gauzatu ahal izateko behar izango balitz izaera pertsonaleko datuak erabiltzea, kontratistak Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorretik ondorioztatzen diren betebeharrak bete beharko ditu, hala nola, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren Hogeita bosgarren Xedapen Gehigarritik ondorioztatzen direnak abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa, esleipendunaren betebeharrak, "tratamenduaren arduradun" gisa, batuko dituen dokumentua formalizatuz.

25. PRESTAZIOA JASOTZEA ETA BERME-EPEA

Kontratuaren xedearen prestazioa amaitzen denetik gehienez, hilabeteko epean harrera- edo adostasun-egintza formal eta positiboa egingo da.

Kontratu honen izaera kontuan hartuta, ez da aurreikusi berme-eperik ezartzerik.

26. EZ BETETZEAGATIK ZIGORRAK KONTRATISTARI

A. Kontratua egikaritzeko epeak ez betetzea

Kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratuaren gauzatze-epearekiko atzeratu bada, bai guztizko epean, bai, hala badagokio, epe partzialetan, Administrazioak bi aukera ditu: kontratua ebaztea, bermea galduz, edo egunero zigorrak jartzea, hain zuzen ere, kontratuaren prezioaren 1000 euroko, BEZik barik, 0,60 € eguneko.

Atzerapenarengatik zigorrak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiplora iristen diren bakoitzean, kontratazio-organoak ahalmena izango du kontratua ebazteko edo kontratuarekin jarraitzeko zigor berriak jarriz.

B. Prestazioak zati batean ez betetzea

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratuan definitutako prestazioen zati bat betetzen ez duenean, Administrazioak bi aukera izango ditu: ebaztea edo zigorrak jartzea. Zigorra kontratuaren prezio guztiaren %10ari dagokiona izango da.

C. Betetze akastuna

Prestazioa emotean akatsak baleude, Administrazioak zigorrak ezarri ahal izango ditu eta horietako bakoitzaren zenbatekoak ezingo dira izan kontratuko prezioaren, BEZik barik, ehuneko 10 baino gehiago, eta haien guztizkoak ezingo du gainditu, ezta ere, kontratuaren prezioaren ehuneko 50a.

D. Ingurumen, sozial edo lan arloetako betebeharrak ez-betetzea

Kontratistak ingurumen-, sozial-, edo lan-, eta emakumeen eta gizonen berdintasun-arloetako betebeharrak betetzen ez dituenean, batez ere, soldaten ordainketan atzerapen errepikatuak gertatzen badira, edo hitzarmen kolektiboetatik eratorritakoak baino soldata-baldintza baxuagoak aplikatzen direnean eta aplikazio hori astuna eta doluzkoa bada Administrazioak SPKLaren 201 artikuluak xedatzen duena betez zigorrak ezarri ahal izango ditu kontratuko prezioaren, BEZik barik, ehuneko 10era arte, eta haien guztizkoak ezingo du gainditu, ezta ere, kontratuaren prezioaren ehuneko 50a

E. Azpikontratistekin betebeharrak ez betetzea

Kontratistak azpikontratistekin dituen obligazioak bete ezean, SPKLaren 217 artikuluak xedatzen duenaren kaltetan gabe, Administrazioak kontratuaren, BEZik barik, ehuneko 10a gainditzen ez duen, ez eta kontratuaren prezioaren ehuneko 50a gainditzen ez duen zigorra jarri ahal izango du.

27. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak azaroaren 8ko 9/2017 Legearen, Sektore Publikoko Kontratuena, 211 eta 313 artikuluetan jasotakoak dira.

28. KONTRATUA LAGATZEA

Kontratutik ondorioztatzen diren eskubideak eta betebeharrak kontratistak hirugarren bati laga ahal izango dizkio, baldintza hauek betetzen direnean:

a) Lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarriak izan ez badira.
b) Lagapenak merkatuan lehiaren egiazko murrizketa eragiten ez badu.
c) Lagapenak kontratistaren ezaugarrietan funtsezko aldaketarik sortzen ez badu eta ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementuak badira.
d) Lagapena SPKLaren 214.2 artikuluak jasotzen dituen betebehar eta eskakizunekin egiten bada.

29. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak prestazioaren zati bat egin ahal izateko hirugarrenak azpikontratatu ahal izango ditu. Edozein kasutan, azpikontratazio hori baldintzatuta geratuko da azaroaren 8ko 9/2017 Legearen, Sektore Publikoko Kontratuena, 215 eta 216 artikuluetan zehaztutako betebeharrak betetzera.

IV.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

30. IZAERA ETA KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA

Plegu honetan oinarrituta sinatuko den kontratuak izaera administratiboa izango du, eta baldintza-agiri honek eta espedientea osatzen duen gainerako dokumentazio teknikoak arautuko dute. Baldintza-agiri honetan aurreikusi ez denerako azaroaren 8ko 9/2017 Legera, Sektore Publikoko Kontratuena, joko da, eta honen kontra ez doan guztian honako hauetara joko da: urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrera; maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretura, urriaren 30eko 30/2007 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen zati bat garatzen duena; eta Herri Administrazioetako kontratazioetan aplikatzekoak diren gainerako arauetara.

Kontraesana balego Administrazioko Klausula Partikularren Agiri honen eta espedientea osatzen duten gainerako agirien artean, baldintza-agiri honek jasotzen duena aginduko du.

31. ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK

Administrazioari honako prerrogatiba hauek dagozkio: kontratuak interpretatzea, eta kontratua betetzerakoan sortzen diren zalantzak ebaztea, interes publikoko arrazoiak direla-eta kontratuak aldatzea, kontratua betearazteko kontratistari egotz dakizkion erantzukizuna deklaratzea, kontratuok suntsiarazteko erabakia hartzea eta honen ondorioak zehaztea Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginak eta Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrak ezarritako mugen barruan eta betekizunei eta ondorioei lotuta.

32. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratu honen ondorioz sor daitezkeen auzi eztabaidagarriak kontratazio-organoak ebatziko ditu. Kontratazio-organoak hartutako erabakiak bide administratiboa amaituko dute, eta zuzenean aurkaratu ahal izango dira Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioaren aurrean. Edozein modutan, errekurtso berezia tartekatzeko aukera ere egongo da azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoetako Kontratuena, 40tik 60ra doazen artikuluetan araututakoa jarraiki edo urriaren 1eko 39/2015 Legean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarena, araututako edozein.

Elorrio, 20.... (e)ko .....ren .....(e)(a)n.

I. ERANSKINA
ERANTZUKIZUNPEKO-ADIERAZPENA, KONTRATATZEKO BETEBEHARRAK BETETZEKOARI BURUZKOA

EUROPAKO KONTRATAZIO AGIRI BAKARRA (EKAB) SARTZEA. BETETZERAKOAN HONAKO OHARRAK JARRAITU BEHARKO DIRA

Eranskinean agertzen den Europako Kontratazio Agiri Bakarraren ereduan bete behar den erantzukizunpeko-adierazpena betetzeko honako pausu hauek emon behar dira:

1.- Jaitsi zure ekipoan Sektore Publikoko Plataforman eskuragarri dagoen DEUC.xml fitxategia – lizitazio honetako eranskinak erlaitza.

2.- Zabaldu honako esteka hau: https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd

3.- Hautatu hizkuntza “español”.

4.- Hautatu aukera hau: “soy *un operador* económico”.

5.- Hautatu honako aukera hau “importar *un* DEUC”.

6.- Gora kargatu ekipoan aurrez jaitsitako DEUC.xml (1. Urratsa).

7.- Hautatu herrialdea eta klikatu “siguiente”.

8.- Bete DEUC atalak.

9.- Inprimatu fitxategia eta sinatu.

10.- Agiri hau behar moduan beteta eta sinatuta lizitaziora aurkeztu behar diren gainerako agiriekin batera aurkeztu beharko da, deialdia arautzen duten agirietan jasotakoarekin bat eta bertan zehaztutako epearen barruan.

11.- Kontratuak lote bat baino gehiago baditu, lizitaziora aurkezten den lote bakoitzeko adierazpen bat bete beharko da.

12.- Lizitazioan ABEE baten barruan aurkezten denean, ABEEa osatzen duen enpresa bakoitzak agiri bat bete beharko du.

13.- Lizitatzaileak kontratua sinatzeko egiaztatu behar den kaudimena beste erakunde batzuen kaudimenean eta bitartekoetan oinarritua aurkezten badu, alde batera utzita izaera juridikoa delakoa dela, agiri bat lizitatzailearen izenean bete beharko du eta beste bat atxikitako bitartekoak dituen enpresa baten izenean.

II. ERANSKINA PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

Nik,..... jauna/andrea, helbidea ....…… kalean dudanak, NAN …….., tel.:…… gaitasun juridiko eta ahalmen osoz jarduteko, nire izenean (edo ……ren ordezkapenean ……..n helbidea duenak, eta NAN edo IFZ, pertsona fisikoa edo juridikoa bada ……zk), Elorrioko Udaleko "ANDRENTZAKO LAGUNTZA-TALDEA" zerbitzuaren kontrataziorako deitutako prozeduraren barri dudala, eta nire erantzukizun pean honako hau

ADIERATEN DUT

1) Konpromisoa hartzen dudala kontratu hau honako prezio honetan …….. € egiteko (BEZa ordaintzetik salbuetsita) ikasturtean (urria ekaina bitartean) garatuko dena, eta bertan kontzeptu guztiak barne daudela ulertu behar da, dozein maila fiskaleko zergak, gastuak, tasak, eta arielak, eta baita kontratistaren etekin industriala.

2) Baldintza Teknikoen Agiria, Administrazio-Klausula Partikularren Agiria eta kontratua arautuko duten gainerako agiriak ezagutzen eta osotasunean onartzen ditudala.

3) Ordezkatzen dudan enpresak zabaltzeko, instalatzeko eta funtzionatzeko indarrean dagoen legediak eskatzen dituen betebehar eta obligazio guztiak betetzen dituela.

4) Bai enpresak, bai bere administrazio-organoek eta ahaldunduek adierazten dute ez dutela lizitazio honetara aurkeztea ezgaitzen dituzten interes-gatazkarik.

Elorrio, 20.... (e)ko .....ren .....(e)(a)n.

Sinadura